



# Azkena Rock Festival jaialdia adinez nagusi bihurtu dela ospatzeko rockaren soinu enblematikoenak entzungai

**40 artista baino gehiago arituko dira 5 agertokitan, jaialdiak iraungo dituen bi egunetan, eta emanaldi gehienak eksklusiboak izango dira Estatuan**

**Azkena Rock Festival** jaialdiko antolatzaileek dena prest dute ekainaren 21ean eta 22an Gasteizen hemezortzigarren edizioa abiarazteko. Motorrak berotzeko, artisten zerrenda txundigarria aurkeztu dugu: **Wilco**, rock amerikarraren ikonoak, eta **Stray Cats**, rockabilly estiloaren legenda; **The B-52s** taldearen agur-bira; **The Cult** taldea 'A Sonic Temple' bere disko esanguratsuenaren 30. urteurrena ospatzen ari da; **Tesla** taldea aurten Espainian ikusteko aukera bakarra izango da, Espainiako azkeneko bira egin zutenetik hamar urte igaro diren honetan; **Deadland Ritual** superbanda, Black Sabbath, Apocalyptica edo Guns n' Roses taldeetako musikarekin; **Philip H. Anselmo & The Illegals** taldeak **Pantera**ren abestiz osatutako errepertorioa du; **The Living End**, azken hamarkadetako Australiako banda handienetako bat; **Meat Puppets** ospetsuak; **Corrosion of Conformity** taldea, bere disko enblematikoenaren 25. urteurrena ospatzen; aurreko talde guztiek kontzertu bakarra egingo dute, gurean; **Neko Case**, gaur egungo emakumezko kantautore garrantzitsuenetako bat; **Tropical Fuck Storm**, une hauetako sentsazio berrietako bat; eta Trashville-tik datorren rock & roll primitiboena **Blind Rage & Violence**, **Los Torontos** edo **Pussycat & The Dirty Johnsons** taldeekin; eta horrela guztira 44 artista osatu arte, jaialdiaren eremuko 5 agertokietan eta hiriko beste batean, bi egunetan.

Andre Maria Zuriaren plazan hasiko da festa goizero, honako hauen doako emanaldiekin: **Tami Neilson** ostiralean eta **Danny & The Champions of the World** larunbatean; musikarekin urteroko hitzordu berezia, hiria jaialdiko giroarekin kutsatzen duena eta plaza jaialdiko ikus-entzuleen eta gasteiztarren arteko topagune bihurtuta. Mendizabalako ateak 17:00etan zabalduko dira egunero. Eremu horretan, zuzeneko musika onena entzuteko aukera izateaz gain, **Wall of Death**eko motoen orroa entzungai izango dugu, berriro ere, Azkena Rock Festival jaialdian, rock basatienaren erritmoari jarraikiz, egunean lau saiorekin; eta Trashville-n **muturreko borroka mexikarra** berreskuratuko dugu, hau da, giltza eta akrobazien ikuskizuna, maskaradun borrokalaria beldurgarrien eskutik, egunean hiru saio zirrargarri izanik. Logistikako kontuak direla eta, Trashville-ko ordutegia aldatu egin behar izan dugu.

## Eskumuturrekoak jasotzea

Jaialdiko eremura sartzeko, eguneko sarreraren edo bonuaren ordezkari jaialdiko eskumuturrekoa jarri beharko da. Ostegunetik hasita, jaialdiko eremuan bertan jaso daiteke eskumuturrekoa,



17:00etatik 22:00etara (osteguna) eta 15:00etatik 02:00etara (ostirala eta larunbata). Hiriaren erdigunean ere izango da eskumuturrekoak eskuratzeko postu bat, Andre Maria Zuriaren plazan, doako kontzertuak izango diren tokian; ostiral eta larunbatean egongo da zabalik postua, 12:00etatik 16:00etara.

### **2020. urterako tiketa:**

2020ko ediziorako lehen sarrerak prezio murriztuan egongo dira salgai jaialdiaren eremuan eta Andre Maria Zuriaren plazako postuan.

### **Rock eskola**

18 urte hauetan, Azkena Rock Festival jaialdia belaunaldien arteko elkargune izan da, musikazaleek beren seme-alabak eramaten dituzten rock eskola bat, eta, errealitate horren jakitun, jaialdiak kultura-transmisio hori ahalbidetuko duten mekanismoak aktibatu ditu, jaialdiaren esperientzia familiarrean gozatu ahal izateko; horretarako, jaialdirako sarbideetan familientzako aukera berezia prestatu dugu eta 14 urtetik beherakoek doan izango dute sarrera. Gogorazten dizuegu 16 urtetik beherako adingabe guztien legezko tutoreek baimena bete behar dutela, online edo txarteldegian.

### **Kanpina**

Jaialditik gertuen dagoen ostatua, zalantzarik gabe, kanpina da, sarreratik oso metro gutxira baitago. Zerbitzu honetan, kanpatzeko ohiko lekuez gain, 'glamping'-a ere izango da: urrutitik iritsi ostean, kanpadenda muntatuta eta ohea egina topatu nahi dutenentzat eta, aurren, berrikuntza moduan, kapsula-ostatuak ere izango dira.

### **Food truck-ak**

Jaialdian, gustu guztietarako janaria eskaintzen duten food truck-en aukera bikaina eta zaindua egongo da egunero, barazki-jaleentzat eta zeliakoentzat ere aukerak izanik, baita azukrerik eta alkoholik gabeko edariak ere.

Aurren ere, **edalontziak** itzulgarriak eta berrerabilgarriak izango dira, jaialdiak jasagarritasunaren alde egiten baitu.

Aurren ere, babesle guztiei gure esker ona adierazi nahi diegu. Haien laguntzarik gabe, ezin izango genituzkeen bete Azkena Rock Festival jaialdiaren edizio honetan garapenarekin eta hazkundearen lotutako helburuak.

### [Press kit](#)

**AZKENA ROCK FESTIVAL**  
**2019ko ekainaren 21a eta 22a**  
**Mendizabala. Gasteiz**

### **Ostirala 21**

#### **God**

17:30 MICKY & THE BUZZ

19:15 THE LIVING END

21:45 STRAY CATS

00:40 THE B-52S





### **Respect**

18:20 SURFBORT  
20:35 DEADLAND RITUAL  
23:20 BLACKBERRY SMOKE  
02:00 GLASSJAW

### **Love**

18:00 GIANTE  
19:15 INGLORIOUS  
20:45 LUCERO  
23:15 TROPICAL FUCK STORM  
02:00 THE HILLBILLY MOON EXPLOSION

### **Trashville- Trash a go-go!**

18:40 DOLLAR BILL & HIS ONE MAN BAND  
20:10 THE CHEATING HEARTS  
22:15 LOS DUQUES DE MONTERREY  
01:00 BLIND RAGE & VIOLENCE  
03:00 DJ BOP HOP  
04:45 CRISTINA SANDALIA

### **Trashville- Rat Hole**

18:30 MUTURREKO BORROKA MEXIKARRA  
20:30 MUTURREKO BORROKA MEXIKARRA  
23:30 MUTURREKO BORROKA MEXIKARRA  
02:15 LAURA PREMINGER  
04:15 DJ SEÑOR LOBO

### **Wall of Death**

17:15  
22:00  
00:40  
03:00

### **Larunbata 22**

#### **God**

17:30 OUTGRAVITY  
19:15 TESLA  
21:45 WILCO  
00:35 THE CULT 'A SONIC TEMPLE'

#### **Respect**

18:20 MT. JOY  
20:35 NEKO CASE  
23:20 GANG OF FOUR  
02:10 PHILIP H. ANSELMO & THE ILLEGALS

#### **Love**

18:00 GARBAYO  
19:15 MEAT PUPPETS  
20:45 CORROSION OF CONFORMITY  
23:15 MORGAN  
02:10 STARCRAWLER





**Trashville- Trash a Go-Go!**

18:40 THE COURETTES

20:10 DEADBEATZ

22:15 LOS TORONTOS

03:00 PUSSYCAT & THE DIRTY JOHNSONS

03:00 DEBORAH DEVOBOT

04:45 WOLF-A DJ

**Trashville- Rat Hole**

18:30 MUTURREKO BORROKA MEXIKARRA

20:30 MUTURREKO BORROKA MEXIKARRA

23:30 MUTURREKO BORROKA MEXIKARRA

02:15 DJ ARBIS vs DJ GAUTXOS

04:15 HOLY CUERVO DJS

**Wall of Death**

17:15

22:00

00:40

03:00

**Bonua:** 120€

**Bonua + Kanpina:** 130€

**Eguneko sarrera:** 65€

**Salmenta:** <https://www.azkenarockfestival.com/es/tickets-festival/>

